

Kaixo, Olentzero.

Joseba naiz, nitaz gogoratzen zara?

Aurten ere, beste urteetan bezala, gabonak heldu dira eta gutuna idatzi behar dizut baina urte honetan gustatuko litzaidake ez idaztea zeren eta jendearen gutunak irakurtzea baino gauza garrantzitsuagoak dituzula uste baitut.

Ez pentsa nik gutuna idazten dizudala zuk nik nahi ditudan gauza oparitzeko, ez horixe! Idazten dizut Euskara irakasleak agindu duelako, eta ez da izan lehenengo aldia, txikitatik Gabonetako lana zuri gutuna idaztea baitzen. Ez al duzu postetxean komisiorik izango?

Beste motibo bat ez idazteko zera da: ez dakit zure helbidea; beraz nora bidaliko dizut eskutitza?

Zerbait eskatzekotan kurtso hau gainditzea eskatuko nizuke baina ba dakit, txikia ez naizelako, zuk ez duzula miraririk egiten eta nik ikasi beharko dudala. Hori dela eta ez dizut ezer eskatuko bai gorantziak bidaliko dizkizut, txikitan emandako ilusioagatik.

Agurtzera noa. Ikusten duzunez azkenean eskutitza idatzi dizut. Ez zara kexatuko, ezta!